

### **Berariazko(espezifikoak) Konpetentziak**

1. Gorputz hezkuntzaren gaur egungo problematika era kritikoan aztertu, egungo gizartean gorputz hezkuntzak eta kirolak duten egoera eta betetzen duten funtzioa ulertzeko.
2. Irakaste-ikaste jarduerak programatzen diren hezkuntz-ikuskeratik ebaluatu ahal izateko, jarduera fisikoa eta kirol ikerkuntzatik datorren hezkuntza-ikuskerara analizatu eta zalantzan jarri.
3. Gizabanakoaren garapen pertsonala eta gizarte-kohesioa bultzatzen programazio unitateak diseinatzeko gorputz hezkuntzaren kurrikulumari buruzko informazioa erabili eta erlazionatu.
4. Gorputz hezkuntzako gela batean programazio unitateak martxan jartzeko gestioa (kudeaketa) egin, unitateen garapenean parte hartzen dituzten atal interaktiboek dituzten arazo-izaera esperimentatzeko.
5. Balore psiko-sozialak bultzatu ahal izateko eta elkarbizitza demokratikoaren arauen eraikuntza erkarlanean laguntzeko, jarduera fisikoaren ezkutuko kurrikulumari buruzkoa pentsaera eta jarrera kritikoa eta arduratsua garatu.

### **Aztergaiak**

1. Gorputz hezkuntza lehen hezkuntzan: arazoak. Gorputz hezkuntzak arrastaka daramatzen arazoak. Profesional gogoetsuen eza. Gorputz hezkuntza eta kirola parekatzea (asimilatzea). Gorputz hezkuntza versus jolasaldia (errekreao).
2. Gorputz hezkuntzaren irakaskuntza-ikaskuntza ikuspegiak. Zer da ongi irakastea? Kalitatea eta /edo eraginkortasuna. Ikasprozesua eta/ edo produktua.
3. Gorputz Hezkuntzaren kurrikuluma lehen hezkuntzan; kurikulumaren egitura; kurrikuluma eratzen dituzten elementuak; eduki multzoak: gorputza, irudia eta pertzepzioa; gorputza, oinarriko abileziak; gorputza adierazpen eta komunikazioa; jokoak.
4. Gorputz hezkuntzaren saioa. Gorputz hezkuntzako programaketaren oinarriko unitatea diseinatzeko oharpen orokorrak. Saioen aurkezpen idatzia. Gorputz kontaktuan, irakaskuntza konstruktiboan eta hartutako erabakien erantzukidetasunean oinarrituriko metodologiak.
5. Ezkutuko kurrikuluma gorputz hezkuntzan: Sexismoa eta gorputz hezkuntza; autoritatea eta menpekotasuna; konpetizioa eta garaipenaren ideologia.

### **Metodologia**

1. Bertaratu beharreko (Presentzialak) eta erdi-presentzialak, irakasgaiaren % 30. 10 saio 2,5 ordukoak, urriak 8 abenduak 17 arteko asteetan. Saio hauek gimnasioan izango dira.
2. Bertaratu gabeko jarduerak eta erdi-presentzialak, irakasgaiaren %70. (azterketa, tutoretzak, urtarrileko asteak, eta egutegi ofizialetik kanpo **egindako orduak**).  
**Jarduera hauek gimnasiotik kanpo egingo dira.**

### **Egin beharreko jarduerak (8 jarduera)**

#### **Bertaratu beharrekoak eta erdi-presentzialak**

- 1 Elkarbizitzarako gutxieneko arauak ezartzeko beharrari buruzko gogoeta. (1 **jarduera**)
  - a. Konpromezu fitxa lehen saio praktikoan entregatu.
- 2 Saio praktikoak bizi egin behar dira (2 **jarduera**)

- a. Saio praktikoetara joan eta aktiboki saioaren garapenean parte hartu.
  - b. Adosturiko arauak errespetatu.
- 3** Diseinaturiko jarduera praktikan jarri.**(5 jarduera)**
- a. Diseinaturiko jarduera eskola-taldeari irakatsi.
- 4** Saio praktikoetan sormenezko eta dinamizatzaile (eragile) rola hartu. **(3 jarduera)**
- a. Gimnasioan jarrera sortzaile eta dinamizatzailea izan.
  - b. Talde eztabaida eragin bateratze-lanetan.

**Bertaratu gabeko jarduerak, eta erdi-presentzialak**

5. Gorputz hezkuntzari buruz eraikitako ideien (pentsamenduez) gogoeta egin.  
**(7 jarduera)**
- a. Testu azterketa. Richard Tinning-en liburuko 1, 4 eta 9 kapituluak.
6. Jarduera praktiko baten plangintza egin **(4 jarduera)**
- a. Saio baten diseinua
7. Planifikaturiko jardueraren gogoeta egin eta praktikan jarri. **(6 jarduera)**
- a. Gogoeta pertsonala praktikan jarritako saioari buruz.
8. Ikasturtea ebaluatu.**(8 jarduera)**
- a. Irakaslearen jarduera ebaluatu. Autoebaluaketa, parte hartzea eta jardueraren betetze maila hartutako konpromezu eta ezarritako irizpideak kontuan izanik.
  - b. Beste kontsiderazio batzuk

Ebaluaketa:

Ebaluaketarako bi aukera daude. (a) Presentziazko saioetara doazenentzako aukera eta (b) ez doazenentzako aukera.

**a) presentziazko saioetara doazenentzako**

% 30 Presentziazko jarduerak

1. Konpromezu fitxa ematea (1 Jarduera.- Nahitaezkoak, ez du puntuatzen)
2. Saio praktikoetara etortzea, aktiboki parte hartzea eta adostutako arauak errespetatzea.(2 Jarduera.-Nahitaezkoa, ez du puntuatzen)
3. Jarrera dinamikoa eta kreatiboa izan eta bateratze-lanean debateen kolektibitatea bultzatu. (3 Jarduera- azken emaitzaren %15)
4. Dantza edo jolas bat taldeari irakastea emandako irizpideak jarraituz (5 Jarduera.- azken emaitzaren %15)

% 70 Bertaratu gabeko jarduerak, eta erdi-presentziazkoak (Lan idatziak)

5. Programazio-fitxa bat eratzea (4. Jarduera- azken emaitzaren %24)
6. Norberak proposatutako saioaren “hausnarketa fitxa garatzea (6 Jarduera.- azken emaitzaren %12)
7. Tining-en liburutik ateratako hiru irakurgaiak aztertzea (7 jarduera azken emaitzaren %24)
8. Ikasturte osoko hausnarketa egitea (8 jarduera.- azken emaitzaren %10)

GARRANTZIZKO OHARRA. Idatzizko lan guztien kopia bat (1, 4, 6, 7 eta 8 lanak) dokumentu bakar batean koadernatuta entregatuko dira, Otsaileko ebaluaketarako zehaztutako datan. Lanak orri-bikotzean egingo dira.

Otsaileko deialdian gaia gainditzeko presentziazko saioetan %15 eta bertaratu gabekoetan %35 gutxienez atera behar da. -

Otsailean, gaia ez gainditzekotan iraileko azterketa ikasle guztientzako berdina izango da, hauxe da (B) aukerak adierazten dituen irizpideak jarraituz.

**b) Presentziazko saioak burutzen ez dituztenak**

Gaia gainditzeko azterketa idatzia eta bi lan idatziak egin behar izango dituzte.

Azterketa %40 izango da eta lanak %60. Lanak ez egitekotan azterketa %100 izango da.

Otsailean, gaia ez gainditzekotan iraileko azterketa ikasle guztientzako berdina izango da, hauxe da azterketa % 100.

**Azterketa:**

**Zertan datza:** Bi testu inguruko galdera motzeko azterketa.

1. OCD (Gorputz Hezkuntza arlokoa)
2. Educación Física: la escuela y sus profesores. (1992) Richard Tinning-en Liburua

**Lanak:**

1. **Zertan datza: idatzizko bi lanetan.**

2. **Lanak egiteko irizpideak**

Lehenengo jarduera **Tinning-en Testua aztertzea** “La educación física: la escuela y sus profesores” (9 kapitulu), irakurketaren ondoren %30

- a. Lehenengo-Kapitulu bakoitzeko galdera bat zehaztu, kapituluaren izenburuan agertertzen den gai nagusiarekin bat datorrena.

- b. Bigarrena.- Autoreak galdetutakoari erantzun testuaren aipamenen bidez. Aipamenak esaldiak edo paragrafoak izan daitezke. Aipamenak agertzen diren orrialdeak zehaztu.
- c. Hirugarrena.- Aukeratutako aipamenetan oinarriturik orrialde bateko edo biko kapituluaren laburpena egin. Tinning-ek planteatzen dituen tesiekin adoz zaudeten ala ez adierazi.

#### Bigarren jarduera Bakoitzaren biografia egitea %30

- a. Adierazi, estilo narratiboan, Lehen Hezkuntzan eta Bigarren Hezkuntzan Gorputz Hezkuntzako klaseetan eta eskola kirolean izandako bizipenak.
- b. Kontaketan ahalegindu zaitezte zuen esperientzia pertsonala Tinning-ek australiar errealitatea irudikatzen duenakin kontrastatzen. Kontaketaren kasu konkrituak oinarri izanik, Euskal Herriko ikastetxeetan gorputz hezkuntza iraganean izandakoaz eta gaur egun suposatzen duena kontuan izanik, ezagutzaren eraikuntzan parte hartzea.
- c. Zeure pertsonalitatearen eraikuntzan gorputz hezkuntzak eta kirolak iraganean izandako eta gaur egun duten eragina adierazi kontaketan. Zeure autoestimua indartzen lagundu duen edo ez adierazi etab.

### 3. Lanak aurkezteko arauak.

- a. Papera: folio Dina.
- b. Testu-tratamenduko programa: Word 2.000 Word XP
- c. Idazketa formatua: Letra-motaren formatua: Times New Roman Normal. 10p ; Paragrafo-formatua: justifikatua, koskarik ez, lerroarte sinplea; Orrialde-marjinak ezker eskubia, 3cm-ra; Goikoa eta behekoa 2,5 cm-ra.
- d. Lana e-mailez bidali ahal izateko, idatziak aberasteko eta azaltzeko gehitutako irudi eta marrazkiak edukiera txikikoak izan behar dute.
- e. Lanak dokumentu berean, orri bikoitzean eta koadernatuta entregatu.

### 4. Bidaltze arauak

- a. Posta elektronikoko bidez bidali azterketa data baino 15 egun lehenago.
  - b. Azterketa egunean kopia bat paperan entregatuko da. Ez ekarri inungo paperik e-mailez ez baduzue lehenik lana bidali.
  - c. Lanak honako helbidera bidali: ana.makazaga@ehu.es
  - d. Posta elektronikoko bidez bidaltzean, jarduera fitxategi erantsia ("adjunto") izango da.
  - e. Eranskina bidaltzen duenaren abizenekin gorde eta lanaren berariazko izenarekin (Tinning edo, biografia).
  - f. Gaia atalean, espezialitatea eta talde zenbakia zehaztu.
    - i. Adibidez Gaia, Atzerriko Hizkuntza, 46.taldea
    - ii. Eranskina, Aristegi Calonge, **Tinnig**
  - g. Ikasleak duen EHU-ko helbide ofiziala erabili (matriculan agertzen dena)
- Oharra: Lanak aztertu eta kalifikatuak izango dira, egite eta aurkezte irizpideak jarraitu ezker.**

Irailako azterketa

Otsailean, gaia ez gainditezkotan iraileko azterketa ikasle guztientzako berdina izango da, hauxe da azterketa % 100.